



Zure ekitaldia BERRIA agertzea nahi baduzu: [www.berria.info/zerbitzuak/agenda/bidali/](http://www.berria.info/zerbitzuak/agenda/bidali/)

### Musika

- **Arrasate.** Audience. Ostegunean, 22:00etan, Gaztetxean.
- **Bilbo.** John The Conqueror. Ostegunean, 21:30ean, Hika Ateneoan.
- **Getxo.** Merino. Ostegunean, 20:00etan, Erromoko Billares tabernan.
- **Getxo.** Giorgo & Luiggi. Ostegunean, 21:00etan, Algortako Piper's tabernan.
- **Legazpi.** Opera Zikloa DVDan: *Il prigionier superbo / La serva padrona*. Bihar, 20:30ean, kultur etxean.
- **Zornotza.** *Jainko txiki eta jolastari hura* ikuskizuna: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal. Ostegunean, 20:30ean, Zelaia zentroan.

### Antzerkia

- **Bilbo.** Zirika Zirkus: *Lara Larika*. Bihar, 18:00etan, Errekaldeko udaltzean.
- **Bilbo.** Iñaki Lasa ipuin kontalaria. Ostegunean, 18:00etan, Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean (Tiboli, 5).
- **Gasteiz.** *Soltarlo al aire*, Maite Gebararen ikuskizuna. Gaur, 20:30etik aurrera, Parral tabernan.
- **Gernika-Lumo.** Oñatiko Pa-keleku zentroko antzerki taldea eta Mungia zentroko abesbatza. Ostegunean, 17:00etan, Elai-Alai aretoan.

### Bertsolaritza

- **Errenteria.** Bertso saioa. Bertsolariak: Sustrai Colina eta Amets Arzallus. Bihar, 09:30ean, Xepelareuskaltegian.
- **Errenteria.** Julio Soto eta Igor Elortza. Ostegunean, 16:00etan, Xepelareuskaltegian.
- **Eskoriatza.** *Bertxio bertso saioa*. Bertsolariak: Miren Amuriza Plaza eta Amets Arzallus. Ostegunean, 18:00etan, Mondragon Unibertsitateko campusean.
- **Gasteiz.** Bertsokatu Txapelketa. Bertsolariak: Ane Labaka, Josu Campo, Paula Amilburu eta Manex Astigarraga. Bihar, 20:00etik aurrera, Hala Bedi tabernan.

### Hitzaldiak

- **Azpeitia.** *Herria, Nazioa eta Estatua*. Bihar, 19:00etan, Sanagustin kulturgunean.
- **Bilbo.** Solasaldia: *Ernesto Neto y sus amigos*. Gaur, 18:30ean, Guggenheim museoan.
- **Donostia.** Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizaren solasaldia: *Andeetako argitasunean*


- eskiatzen*. Bihar, 19:30ean, Okendo kultur etxean.
- **Donostia.** *Apego y desapego: libérate de las dependencias*. Ostegunean, 18:00etan, Lugarritz kultur etxean.
- **Donostia.** *Sugeak eta sugegorriak: ospe txararen biktimak* hitzaldia. Ostegunean, 19:00etan, San Jeronimo kaleko sotoan.
- **Eibar.** *Soberanía tecnológica y alimentaria*. Victor Barahona ingeniari eta permakulturgilearekin. Gaur, 16:00etan, Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan.
- **Errenteria.** Javier Asin konpositore eta soinu diseinatzaileak bere lana azalduko du: *La música como personaje en escena: el proceso creativo de composición musical*. Ostegunean, 19:30ean, Niessen kulturgunean.
- **Errenteria.** Literatur solasaldien barruan, Unai Elorriagaren *SPRako tranbia* liburua landuko dute. Bihar, 19:00etan, Xepelareuskaltegian.
- **Iruñea.** Hitzaldia eta haiku lantegia. Ostegunean, 19:30ean, Nafar Ateneoan, Barañain etorbidea, 10.
- **Markina-Xemein.** *Abortuaren legearen erreforma*, Bilgune Feministako kide batekin. Ostegunean, 19:00etan, Uhagon.
- **Oiartzun.** *Hiztunpolisa*, Jon Sarasuarekin. Bihar, 19:30ean, udaletxe areto nagusian.
- **Pasaia.** *Oso latza izan da* ikus-entzuzkoa eta hitzaldia. Ostegunean, 19:30ean, Pasai Donibanen, Victor Hugo etxean.

### Ikus-entzun

- **Arrasate.** *Aulki hutsak* dokumentala. Bihar, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian
- **Donostia.** *Me siento rejuvenecer*. Gaur, 18:00etan, Lugarritzen.

### SAN TELMO MUSEOA

Euskal gizarteari buruzko museoa  
Zuloaga Plaza, 1  
943 481 580  
Asteartetik igandera  
Orduetgia: 10:00-20:00  
[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)



Gaur, asteartea, museoko sarrera dohainik  
Artisau-erakustaldia: beira  
Galiarren Aroan. Cesar aureko Akitia erakusketaren harira Igor Obeso artisauaren erakustaldia  
17:00 - 20:00 - Klausatroan  
Dohainik

**STM**

San Telmo Museoa



BERRIA

## Victor Barahona • Ingeniaria eta permakulturazalea

Nekazaritza iraunkorraren laburdura da 'permakultura' hitza. Naturarekin modu harmonikoan lan egiteko moduak eta 'baserriko hardware irekia' esperimentatzen ditu Barahonak.

# «Permakulturak zabaltzeko arazo handiak ditu, hippy asko erakartzen dituelako»

### Edu Lartzaguren

Victor Barahonak (Eibar, Gipuzkoa, 1966) 22 urte eman ditu telekomunikazio industrian lanean. *Soberanía tecnológica y alimentaria* hitzaldia emango du gaur, 16:00etan, Eibarko Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan. **Permakultura paisaia eta gizakientzako nekazaritza «iraunkor eta harmoniatsua» lortzen saiatzen den mugimendua da. Zertan ari zara zu horretan?** Gaztetatik ezagutzen dut permakultura, eta nire asmoa beti izan da permakultura praktikan abian ikusteko leku bat sortzea. Azken urteotan, ordea, permakulturaren mugimendutik sorturiko nekazaritza birsortzaileen hartu dut interesa. Darren Doherty australiarrek asmatu du, permakultura eremu handietan eta modu serioan ezartzeko. Biak nahastu ditut nire etxaldean. **Egiten duzunaren adibide bat?** Bio-ongarriak lantzen ditut. Norberak bere ongarriak ahalik eta ondoen egitea eta zomorro kaltegarrien aurkako produktuak egitea da honen helburua. Lurra, simaurra, arrozaren azala... eta ha-

lakoak erabilia, norberak etxean eginda. Hego Amerikatik dator hau, eta indar handiz sartzen ari da hemen. **Permakultura hippyen kontuekin lotzeko joera dugu.** Permakultura guztientzat bada, nekazaritza birsortzailea 18 urte tik gorakoentzat da. Itxurazko permakulturgile asko dago: gauza polita da, utopikoa, soinu ederra du... Zabaltzeko arazo handiak ditu, hippy asko erakartzen dituelako, hau da, lanik egin behar ez dela uste duen jendea, sagarrondoren azpian etzan eta sagar uzta izango duela uste dutenak. Horregatik, permakulturak atzera eragin die nekazari, horiek badakitiko zenbat lan egin behar den soroan. Horrez gain, ez dago permakulturako baserri egitasmo seriorik, bertara joateko eta ikusteko. Horregatik, Australiar arrakasta izan du, baina Europako hegoaldean ez. **Zu ingeniaria zara, eta nekazaritza gain, teknologiaz aritzen zara.** Permakultura diseinua da, azken batean, horregatik ez dago kontasunik, eta teknologiazaleak ere erakar ditzake. Gaur, oso jende gutxi lan egiten du nekazaritza, mekanizatuta dagoelako. Baina etorkizunean, petrolio

urritu ahala eta energiaren gaitzailtzen den heinean, agian aldatu egin beharko da ekonomiaren alor bakoitzean dabilen jendearen proportzioa. **«Baserriko hardware irekia» bultzatzen duzu. Zer da, ordea?** Bi 3D inpresora egin nituen iaz, eskuz, piezaz pieza. Baserrian behar ditudan gauzak inprimatzeko egin nituen, eta, betiere, partekatze filosofiarekin. Esaterako, gurean urarekin argindarra sortzeko turbina bat egin dut, plastikoko biodegradagarrian. Interne ten jarri dut, eta mundu osoko jendeak deskargatu du diseinua. Hori esploratzen ari naiz, baina, halere, nire asmoetako bat da teknologia maila simplean lan egitea. Horregatik interesatzen zait bioongarria, nekazari analfabetoek egunero ikasten dituelako mundu osoan. **Eta energiaren inguruko iragarpen apokaliptikoak ez badira betetzen?** Petrolioaren eskasiaren kontua egia ez balitz ere, mereziko luke honetan aritzea, argi dagoelako ez goazela ondo. Nik ez dakit zertatutako den, baina gustuko dut honetan lan egitea, hondamendirik ez badago ere, hau guztia erabilgarria delako garatze bidean dagoen edozein herrialdetan.